

# Poesia freskoa uda unibertsitarioran

Euskal poeta ugari hartuko du parte UEUK eta EHUK antolatutako ikastaroetan

**U**nibertsitate munduak poesiari arreta berezia eskainiko dio artengo udan. Bai UEUK eta bai EHUKo Uda Ikastaroetan poesiari buruzko ikastaro bana izango da. UEUKoek datorren astean egingo dute berea, eta EHUKoek hurrengoan.

JUAN LUIS ZABALA / DONOSTIA

Literatur genero baten aukera egiten hasita, poesia hautatu dute aurten UEUKo ikastaroen antolatzaileek. «Euskarazko poesian mugimendua zegoela somatzen zelako» izan zen aukeraketa hori, ikastaroaren koordinatzaile den Gerardo Markuleta adierazi digunez. Euskal poesiagintzan dauden poetika ezberdinei plaza eman nahi izan die Markuleta ikastaroan.

Hitzaldiez gain, poesia errezitaldiak egingo dira Larraonan arratsaldero. «Egileak berak irakurriko ditu bere poemak, eta era horretan egileak bere poesia kontestualizatu ahal izango du, eta ulermen maila zabaldu».

Oro har, «euskal poesian aurki daitezkeen poetika ezberdinak bildu eta eritzi ezberdinen arteko topagune bat bilatzea» izan da Markuleta xedea, eta iritzi ezberdinateko poeta eta kritikoak bildu ditu horretarako.

EHUKo Uda Ikastaroen artean, poesiari buruzkoa antolatzen ari den Jon Kortazar irakasle eta kritikoak aise azaldu dizkigu aurtengo ikastaroaren nondik-norakoak: «Jaz 70en hamarkadako poesia eta nobelagintza aztertu genituen. Aurton ere biak aztertzea proposatu nuen, baina 80en hamarkadan kokatuta. Aurrekontuekin arazoak izan dira, eta bakarra aukeratu behar eta poe-



Joseba Sarrionandia.

siarena aukeratu dut».

Literatur ikasketetan nabari duen hutsune bat betetzeko ahalegina egin die Kortazarrek ikastaro honetan: «Idazle poetikak ez dira ugari egileak bere poesia kontestualizatu ahal izango du, eta ulermen maila zabaldu».

Horretaz gain, «idazle bakoitzak duen munduaren ikuspegi berezia» plazaratzeko ere balio dezake ikastaro honek. Kortazarren iritziak. Hirugarren helburu bat ere badu kanpoko idazleak ere bilduko dituen ikastaro honek: «Euskal literaturak badu kanporantza begira leihotzat, eta aurten hiru idazle eta kritiko bat etorriko dira gure artera».

## 'Euskal Olerria. 80ko hamarkada'

Donostia. EHUKo Udako X Ikastaroak. Miramar Jauregia. Uztaileak 22-25  
Izenburua: 'Euskal Olerria. 80ko hamarkada'

Egitaraua:

Uztaileak 22, astelehena

9: Lluís Roda: 'La tragedia de la ironía'

10.15: Julia Barella: 'Poética de los 80'

11.30: Luis García Montero: 'Una poética de la complicidad'

12.45: Alex Susana: 'Cuaderno veneciano. Una poética de la experiencia'

Uztaileak 23, asteartea

9: Julia Barella: 'Poéticas de los 80'

10.15: Felipe Juaristi: 'Hamarkada miresgarria'

11.30: Juan Kruz Igerabide: 'Hegoaldeko itsas barna'

12.45: Patxi Ezkiaga: 'Dialektikaren muturretan'

17.00: Mahaingurua: Lluís Roda, Luis García Montero eta Alex Susana

Uztaileak 24, asteazkena

9: Joxerra Garzia: 'Izen ala ez izen'

10.15: Iñigo Aranbarri: 'Hiru bala beltz'

11.30: Edorta Jimenez: '30 urterekin hasi nintzen'

12.45: Inazio Mujika ('Etokizunerako izpiak'), Karlos Linazasoro eta Juanra Madariaga: Uztaileak 25, osteguna

9: Patziku Perurena: 'Orixeren belarria, euskal senaren oinarria'

10.15: Gerardo Markuleta: 'Joxe Austin Arrietaren lan poetikoa'

11.30: Iñaki Aldekoa: 'Hiria eta irria'

12.45: Jon Kortazar: 'Hiru harien bilbea'

## 'Egungo Euskal Poesiaren Bideak'

Iruñea. Udako Euskal Unibertsitatea. Larraona. Uztaileak 15-19

Izenburua: 'Egungo euskal poesiaren bideak. Poetak eta kritikoak'

Egitaraua:

Uztaileak 15, astelehena:

15.30: Iñaki Aldekoa: '1950-1990. Euskal poesiaren antologia batendako sarrera'

17: Felipe Juaristi: 'Euskal poeta eta euskal gizartea'

Uztaileak 16, asteartea: 9.30: Iñigo Aranbarri: 'Nere poesigintza'

11: Iñigo Aranbarri eta Andoni Tolosa: poesia errezitaldia

15.30: Bernardo Atxaga: 'Joseba Sarrionandiaren poesia'

Uztaileak 17, asteazkena:

9.30: Gerardo Markuleta: 'Haize berriak euskal poesia gaztean'

11: Andoni Tolosa: 'Rocka eta Poesia'

Uztaileak 18, osteguna:

9.30: Edorta Jimenez 'Omar Nabarro': 'Nere heteronimoak'

11: Joxe Austin Arrieta: 'Nere poesigintza'

Uztaileak 19, ostirala:

9.30: Juan Kruz Igerabide: 'Poesia versus Tradizioa'

11: Jon Arano: 'Nere poemen irakurketa komentatua'

Arratsaldero: Poema errezitaldiak.

## ALBISTEGIA

### KOORDINATZAILEA

Juan Luis Zabala

### LAGUNTZAILEAK

Felipe Juaristi

Itxaro Borda

Aingeru Epaltza

Edorta Jimenez

Jon Arano

**XABIER KINTANA** izan da Getxoko Kultur Etxeak antolatutako Juan Gorostiaga Literatur Lehiaketaren garailea gazteen literaturaren arloan, 'Lekukoak hitz egiterik ez' lanarekin. Haur literaturaren saillean Maite Atxikallende izan da irabazlea, 'Kondearen mandolina' lanarekin. Bigarren saria honako lanok jaso dute: Belizen bizi den Lafitte-ren 'Beñat eta otso txuria' eta Arantza Diaz Urbietaren 'Eta irudimintantak'. Hiru akzesit ere banatu ditu Jose Antonio Arana Martija, Jose Mari Iturralde eta Jose Manuel Lopezek osatutako epaimahaiak: Karlos Santistebanen 'Margo koloretsuen enparantza' eta 'Txotxo txotxongiloa' eta Karlos Linaza-

sororen 'Junda bertako kontearen apostua' lanak izan dira akzesitak jaso dituztenak.

### LEOPOLDO BARREDA

Bilboko Partido Popular alderdiko eledunak oso kezka handia du Bizkaiko Foru Aldundiko kultur diputatuak eskarazko sariketa literarioak antolatzeaz utzi diezaiokeela esan duelako. «Bizkaiera literarioarentzat oso kaltegarria izango litzateke», Barredaren ustez, Bizkaiko Aldundiak antolatutako literatura sariketa bertan behera uztea. Horregatik, Tomas Uribeetxebarria kultura diputatuari honako galdera hauek egin dizkio, idatziz erantzun diezazkion: «Zenbat egile eta

zenbat lan aurkeztu dira lehia-keta honetara 1988, 1989, 1990 eta 1991n? Zein baliapide erabili izan dira deialdi bakoitzaren zabalkunderako? Sariketa hau galtzen bada, ba al dago aukerarik nahikoa bizkaiera literarioa bultzatzen jarraitzeko?»

### MANUEL BLANCO CHIVITE

idazle donostiarraren 'Operación Mendi' ('Mendi Operazioa') izeneko nobela argitaratu du Txalaparta argitaletxe iruindarrak. Manuel Blanco Chivite kazetaria da. Heriotz zigorra ezarri zioten 1975ean, eta gero 30 urteko gartzela zigorraz aldatu zioten. Nobela berri honetan 'gerra zi-

kina' deituaren trama hartu du kontaketa gaitzat Blanco Chivitek.

### SALMAN RUSHDIEN

'Bertso satanikoak' japoniera itzuli zituen Hitoshi Igarashi itzultzaile japoniarra labanaz zauritu eta hil egin zuten atzo, Tsukubako Unibertsitateko campusean. Erabateko ziurtasunik ez badu ere, Japoniako Poliziak uste du Rushdiaren lana itzuli izateagatik hil dutela Igarashi. Jakina denez, 'Bertso satanikoak' liburua iraingarritzat hartu eta Rushdieri heriotz zigorra ezarri zion Khomeini ayatollahk.

### NINA BERBEROVA idazle

errusiarraren hiru liburu argitaratu berri dituzte, EEBBetan, Italian eta Espainian. EEBBetan, 'The Tattered Cloak and other novels' izeneko lana argitaratu du Knopf argitaletxeak; Italian, 'Il caso di Kravchenko' kaleratu du Guanda argitaletxeak; Espainian, 'Mourá Budberg' plazaratu du Circe argitaletxeak. Blok, Gorki, Nabokov eta Maiakovskiren adiskide izan zen Nina Berberova, eta 1985 arte oso ezaguna izan ez bada ere, sona handia lortu du azken urteotan, Frantzia hasieran eta mundu osoan gero. Filadelfian bizi da gaur egun, ez du Solkhenitsin ezagutzen, eta gaur egungo idazle errusiarraren lanak ez zaizkiola interesatzen dio.



**BILINTX**  
LIBURUDENDA

DONOSTIA Euskal gaiak: Fermin Calbeton, 30 Tel.: 420930  
Gai orokorrak: Esterlines, 10 Tel.: 420224/420080  
IRUNEN: Republica Argentina, 4 Tel.: 626817  
TOLOSAN: Arostegieta, Tel.: 673533  
BERGARAN: Ibarra, 14 Tel.: 764050



**XALBADOR**  
LIBURUDENDA

Comedias, 14  
Tel.: 224167 FAXA: 211061  
31001 IRUÑA



**URRETXIN DORRA**  
LIBURUDENDA

Iparragirre 26  
Tel.: 4240228/4244396 FAXA: 4244235  
48011 BILBO